

SOFTWARE GARATZAILEENTZAKO JAKINARAZPENA

Faktura jaulkitzeko beharra betetzeko agindua

TicketBAIri buruzko araudiaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera

Lehenengoa. TicketBAI fitxategi bat sortu beharko da ondasun emate edo zerbitzu emate bakoitzeko. Kontua ez da eguneko salmentak laburbiltzen dituen fitxategi bat egitea, eragiketa bakoitzeko bat baizik. TicketBAI fitxategia elektronikoki sinatu beharko da (ikusi sinaduraren zehaztapenak).

Bigarrena. Fitxategia sortu eta sinatu bezain laster, telematikoki bidali behar zaio Arabako Foru Ogasunari.

Hirugarrena. Unean bertan emango da TicketBAI kodea eta QR kodea dituen eragiketaren faktura edo egiaztagiria.

Hau da:

- Ez da Ogasuneko web zerbitzuaren erantzunaren zain egon behar TBAI identifikatzailea eta QR kodea sartzeko.
- TBAI identifikatzailea eta QR kodea softwareak berak kalkulatu behar ditu; Ogasunak ez du eragiketa horietan esku hartzen.
- Bai bidalketaren erantzuna “Jasota” bada, bai “Jasota. Oharrak ditu” bada, bai “Ezetsia” bada, faktura bezeroari eman behar zaio eta TBAI identifikatzailea eta QR kodea izan behar ditu.
- Bidalitako fitxategi guztiak (zuzenak, oharrak dituztenak eta ezetsiak) gorde egin behar dira, eta ezin dira aldatu.
- Ezin da bidalketa atzeratu, edo softwarearen erabiltzaileak noiz egin nahi duen erabakitzen utzi. Atzerapena TicketBAI araudiaren 14. eta 17. artikuluetan jasotako kasuetan baino ez dago onartuta.

Igorlearen ziurtagiria: Nahitaezkoa da ziurtagiri bat aurkeztea Rest zerbitzua https bidez eskatzeko.

Igorlearen identitatea: Bidalketan erabilitako ziurtagiria jaulkitzailearena berarena izan behar da, edo 2-d) mailako borondatezko bere ordezkariarena, edo aurretik Gailu ziurtagirien erregistroa (araba.eus) web orriaren bidez igorlearen IFZri lotutako gailu ziurtagiri bat, edo hirugarren batena, edo hartzailearena.

Eskema: Ziurtatu bidali beharreko XML fitxategiak XSD eskemaren baliozkotzea gainditzen duela bidali aurretik.

Bete beharreko eremuen formatuak:

- Igorlearen eta hartzaileen edo bezeroen IFZ: Ez da onartuko [a-z|AZ] edo zenbakizkoa ez den karaktererik, eta luzera bederatzi izan behar da. Softwareak ez luke utzi behar formatu okerreko IFZk sortzen.

```
<IDDestinatario>  
<NIF>A20/078540</NIF>
```



Un XML con este NIF será rechazado por no superar esquema

- BEZ_IFZ: Herrialdea (2 karaktere) + Identifikazioa izan behar da.
- Datak formatu honetan adierazi behar dira beti: EE-HH-UUUU (\d{2,2}-\d{2,2}-\d{4,4})
- Hainbat eremu balio baliodunen zerrenda batekin soilik bete daitezke: Herrialdearen kodea, Egoitza herrialdeko identifikazioa, Zenbait hartzaile, Faktura zuzentzailearen kodea, Faktura zuzentzaile mota, BEZaren araubide bereziaren gakoa. Kontsultatu xehetasunak hemen: I. eranskina: TicketBAI altako fitxategiaren egitura eta baliozkotzeak (pdf)

Nahitaezko eremuak: Nahitaezko eremu bat betetzen ez bada, XML fitxategia baztertuko da, eskemaren baliozkotzea ez gainditzeagatik.

Arazoak eskemarekin

- POSTera iristen den edukia XML TicketBAI fitxategia izan behar da, bere horretan; ezin zaio ezer erantsi.
- Ziurtatu bidalketan http goiburua hau sartzten duzula: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8
- Fitxategia ezin da konprimituta bidali.
- Ziurtatu UTF8 kodifikazioa erabiltzen duzula.

```
<ApellidosNombreRazonSocial>SUDRE</ApellidosNombreRazonSocial>  
<CodigoPostal>64700</CodigoPostal>  
<Direccion>37, rue de l'industrie</Direccion>
```

Behin fitxategia sinatuta, kontuz aldatetekin. Arreta berezia jarri behar da **Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren (FMNT)** sinadura erabiliz gero, sinaduran azentu marka duen hitz bat baitago.

Oinarrizko datuak: Ziurtatu oinarrizko datuek eskatzen den formatua dutela.

Zenbakitzeari buruzko gomendioak (saila eta faktura zenbakia):

- Ez sartu karaktere berezirik fakturaren sailean, eta faktura zenbakian karaktere numerikoak soilik erabiltzea gomendatzen da.
- Aukera bat da sailean faktura mota eta jaulkipen urtea jasotzea, eta faktura zenbakia zenbakizko sekuentziarako soilik erabiltzea.

Fakturaren saila:

- “Fakturaren saila” eremua fakturen identifikazioaren zati denean, fakturari erreferentzia egiten zaion guztietan adierazi beharko duzu. Eremu hori XSD fitxategian aukerakoa izateak ez du esan nahi hutsik utz daitekeenik honako ekintza hauetarako faktura bat adieraztean:
 - Faktura baliogabetu
 - Faktura zuzendu
 - Kateatzean aurreko faktura izan dadila adierazi

Adibidea:

```
<FakturaGoiburua>  
<FakturaSaila>TB-2021-S</FakturaSaila>  
<FakturaZk>2</FakturaZk>  
<FakturarenJaulkitzeData>22-01-2021</FakturarenJaulkitzeData>
```

Faktura003.xml

```
<AurrekoFakturaKateatzea>  
<AurrekoFakturaSaila/>  
<AurrekoFakturaZk>2</AurrekoFakturaZk>  
<AurrekoFakturaJaulkitzeData>22-01-2021</AurrekoFakturaJaulkitzeData>
```

Sinatze arazoak

- Ziurtatu XML fitxategiaren sinadura zuzena dela. Horretarako, Interneten eskuragarri dauden sinadura egiaztatzaileetara jo dezakezu, hala nola [IZENPEren balidazio tresnara](#).
- Ziurtatu bidalketa programa ez dela kodifikazioa aldatzen ari bidalketa egitean.
- Ziurtatu fitxategia sinatu ondoren ez duzula aldaketarik egin edukian.
- Sinaduraren formatua Xades Epes Enveloped izan behar da, bestela atzera botako du eskemak.

BIHri atxikitako enpresak:

TicketBAIko FakturaSaila + FakturaZenbakia kateatzea BIHren FakturaSailaZenbakia eremuaren berdina izan behar da.



Xehetasun lerroen zenbatekoak:

- Lerroko **UnitatekoZenbatekoa** beti BEZik gabe jarri behar da Kontuan izan 8 hamartar dituzula lerroaren prezioa edo UnitatekoZenbatekoa adierazteko. Ez moztu edo biribildu prezioari buruzko informazioa, baliozkotze ekonomikoaren kalkuluetan deskoadratzerik izan ez dadin.
<element name="UnitatekoZenbatekoa" type="T:ZenbatekoaSgn12.8Type"/>
- Lerroko **GutzizkoZenbatekoa** BEZarekin jarri behar da beti (eta baliokidetasun errekaruarekin, izanez gero) (salbuetsia edo ez-zergapekoa bada izan ezik).
- **Deskontua:**
 - Ez idatzi deskontuaren ehuneko; zenbatekoa eurotan adierazi behar da
 - Deskontuaren eremua aukerakoa da XSD fitxategian. Baina deskontua aplikatzen bada, nahitaez adierazi behar da.
 - **Deskontuaren zenbatekoa positiboa izan behar da beti.** Zerga oinarriari kenduko zaio.

Adibidea: $Kopurua = 1$, $unitateko zenbatekoa = 80$ eta $deskontua = \% 10$ duen xehetasun lerro bat honela bete behar da:

```
<XehetasunarenDeskribapena>KALKULAGAILU DIGITALA</XehetasunarenDeskribapena>
<Kopurua>1.00</Kopurua>
<UnitatekoZenbatekoa>80.00000000</UnitatekoZenbatekoa> (BEZik gabe)
<Deskontua>8.00</Deskontua> (8 €-ko deskontua; zenbateko positiboa izan behar da. Ez idatzi deskontuaren ehuneko)
<GutzizkoZenbatekoal>87.12</GutzizkoZenbatekoal> (BEZarekin.  $80 - 8 = 72$  kalkulatu da eta BEZaren  $\% 21$  gehitu)
```

- **Fakturaren gutzizkoan deskontua** aplikatzeko (adibidez, berehala ordaintzeagatik), sartu **GutzizkoZenbatekoan deskontuaren zenbateko negatiboa** jasotzen duen lerro bat.

Adibidea: Berehala ordaintzeagatik $\% 5$ eko deskontua aplikatu nahi badugu 600 euroko <Unitateko zenbatekoa> eta 726 euroko gutzizko zenbatekoa duen salmenta batean, xehetasun lerro bat gehitu behar dugu, honela:

```
<XehetasunarenDeskribapena>Berehala ordaintzeagatik deskontua</XehetasunarenDeskribapena>
<Kopurua>1.00</Kopurua>
<UnitatekoZenbatekoa>-30.00</UnitatekoZenbatekoa> (BEZik gabe. Negatiboa.  $600 * 5\% = 30$  kalkulatu da)
<GutzizkoZenbatekoal>-36.30</GutzizkoZenbatekoal> ( $\% 21$ eko BEZarekin)
```



Eta deskontu orokorrari dagokion xehetasun lerro hori kontuan hartzen da <FakturarenGutzizkoZenbatekoa> kalkulatzeko:

<FakturarenGutzizkoZenbatekoa>689.70</FakturarenGutzizkoZenbatekoa> (726 – 36,30 = 689,70)

Fitxategi akastunen adibideak:

BEZaren % 21eko atxikipena duten eragiketen bi adibide:

Deskontua eurotan jarri behar da, ez ehunekoa (kasu honetan % 20), eta positiboa izan behar da, eta, gainera, lerroaren guztizko zenbatekoak BEZa izan behar du:

<XehetasunarenDeskribapena>**OINETAKOAK**</Xehetasunaredeskribapena>
 <Kopurua>**1.00**</Kopurua>
 <UnitatekoZenbatekoa>**50.00**</UnitatekoZenbatekoa>
 <Deskontua>**20**</Deskontua> → ez da % 20 idatzi behar, baizik eta (50 x % 20 = 10.00)
 <GutzizkoZenbatekoa>**40.00**</GutzizkoZenbatekoa> → 48.40 izan behar zen
 (BEZa barne)

Fakturaren zenbatekoa, guztira

- Ez sartu Atxikipena FakturarenGutzizkoZenbatekoan.
- QR kodearen URLan adierazi behar da FakturarenGutzizkoZenbatekoa, XML fitxategian adierazi den bezala (Atxikipenik gabe).

Adibidea:

1.000 euroko zerga oinarria, % 21eko tasa eta % 15eko atxikipena duen faktura.

ZERGA OINARRIA 1.000

KUOTA 210

ATXIKIPENA 150

FAKTURA, GUZTIRA 1.210

ORDAINDU BEHARREKOA 1.060

XML fitxategian adierazi beharreko Fakturaren Gutzizko Zenbatekoa: 1.210

Bezeroak 1.060 ordaindu behar dio fakturaren jaulkitzaileari, baina FakturarenGutzizkoZenbatekoan 1.210 agertu behar da. QR kodea eskaneatzean, Ogasunean egiaztatu ahal izango duen informazioak guztizko zenbatekoa 1.210 euro dela adieraziko du.

BEZaren araubide bereziaren gakoak eta zerga garrantziko eragiketak:

- Kontuan izan gakoen arteko bateraezintasuna.
- Garrantzitsua da gakoak zein ordenatan betetzen diren. Berrikusi gakoen baliozkotzeak TicketBAI alta fitxategiaren baliozkotzeak dokumentuan .
- Galdetu zure bezeroari ea Baliokidetasun Errekarguko Araubide Berezian dagoen. → Hala bada, identifika itzazu zure fakturak 51 araubide gakoarekin.
- Galdetu zure bezeroari ea Araubide Erraztu Berezian dagoen. → Hala bada, identifika itzazu zure fakturak 52 araubide gakoarekin.

Kateatzea

Aurreko fakturaren eremu guztiak bete behar dituzu: Saila (baldin bazuen), JaulkitzeData, etab.

TicketBAI softwarearen lizentzia

Erabili proba lizentzia soilik proba ingurunerako; ez bidali proba lizentzia duen fitxategirik ekoizpen ingurunera, ezta alderantziz ere.

- Softwarearen izena eta erakundearen IFZ zehaztu behar dira, erregistroan agertzen diren bezalaxe. Kontsultatu Software erregistroa aplikazioan zure softwarearen datu zehatzak.
- Kontuz: IZENA eremua softwarearen izenari dagokio, eta ez garapen erakundearenari.
- Nahikoa da zure softwarea ogasun batean erregistratzea. Erregistroek TicketBAI sistema guztietarako balio dute.

```
- <Software>  
  <LicenciaTBAI>TBAIARbHHjHHHHH00001</LicenciaTBAI>  
  - <EntidadDesarrolladora>  
    <NIF>P01000001</NIF>  
  </EntidadDesarrolladora>  
  <Nombre>fakturARABA</Nombre>  
  <Version>1.0</Version>  
</Software>
```

TicketBAI proba ingurunea eta TicketBAI ingurune erreala:

Oso garrantzitsua da bereiztea zer ingurunetan ari zaren lanean. Bi ingurune daude:

- **PROBA ingurunea:** Proba ingurune bat duzu, nahi dituzun proba faktura guztiak bidaltzeko. Ingurune horretan alta emateko, jo TicketBairen proba ingurunearen gidara. Proben ingurunean PROBA lizentziak erabili behar dira, eta benetakoa ez diren IFZk erabil daitezke.
- **EKOIZPEN ingurunea (erreala):** Benetako fakturak Ogasunera bidaltzeko da. Ez erabili proba lizentziarik ekoizpen ingurunean. Software berme-emaileen zerrendan erregistratutako lizentziak baino ez dira onartzen. Ez erabili benetakoa ez den IFZrik, ez fakturaren jaulkitzailearentzat, ezta hartzaileentzat ere: “A00000000- Azken kontsumitzailea”, “99999910G - TBAI PROBAK”, ... Ez erabili benetakoa ez den ziurtagiririk edo existitzen ez diren erabiltzaileei lotutako proba ziurtagiririk.

TicketBAI fitxategiak zuzentzea:

Laster argitaratuko dira Rest ZUZENDU zerbitzu berriaren zehaztapenak.

TicketBAI alta fitzategiaren baliozkotze ekonomiko orokorrak:

Baliozkotzeak <FakturaXehetasunak> xehetasunetan:

- <UnitatekoZenbatekoa> datua BEZik gabe jarri behar da
- <GutzizkoZenbatekoa> datua BEZarekin jarri behar da (eta baliokidetasun errekgarekin, izanez gero)

Baliozkotzeak <FakturaBanakapena> edo <EragiketaMotarenBanakapena> banakapenetan:

- Zergapekoa/Ez-salbuetsia banakapenentarako: kuotak ongi kalkulaturik daudela egiaztatzen da (adierazitako zerga oinarriaren eta zerga tasaren arabera)

Fakturaren xehetasunen eta gutzizko zenbatekoaren arteko koadratzea:

- Xehetasunen gutzizko zenbatekoaren batukariak bat etorri behar du fakturaren gutzizko zenbatekoarekin.

Banakapenen eta fakturaren gutzizko zenbatekoaren arteko koadratzea:

- Banakapenen zenbatekoen batukariak bat etorri behar du fakturaren gutzizko zenbatekoarekin.
Banakapenen zenbatekoen batukaria =

$$\langle \text{ZergaOinarria} \rangle + \langle \text{ZergaKuota} \rangle + \langle \text{Zergapekoa} \rangle / \langle \text{Ez-salbuetsia} \rangle$$
 motako banakapen guztien $\langle \text{BaliokidetasunErrekgarearenKuota} \rangle$
 + $\langle \text{Salbuetsia} \rangle$ motako banakapen guztien $\langle \text{ZergaOinarria} \rangle$
 + $\langle \text{Ez-zergapekoa} \rangle$ motako banakapen guztien $\langle \text{Zenbatekoa} \rangle$

Xehetasunen eta banakapenen arteko koadratzea:

- Xehetasun lerroen BEZik gabeko zenbatekoen batukariak bat etorri behar du banakapenen zerga oinarrien batukarirekin.
- Xehetasun lerroen kuoten batukariak bat etorri behar du banakapenen kuoten batukarirekin.

Honela:

“ \sum xehetasun lerroetako zenbatekoak BEZik gabe” = $\langle \text{Zenbatekoa} \rangle * \langle \text{UnitatekoZenbatekoa} \rangle -$
 xehetasun lerro guztien $\langle \text{Deskontua} \rangle$

“ \sum xehetasun lerroetako kuotak” = $\langle \text{GutzizkoZenbatekoa} \rangle -$ xehetasun lerro guztien [$\langle \text{Kopurua} \rangle * \langle \text{UnitatekoZenbatekoa} \rangle - \langle \text{Deskontua} \rangle$]

“ \sum banakapenen zerga oinarriak” =

$\langle \text{Zergapekoa} \rangle / \langle \text{Ez-salbuetsia} \rangle$ motako banakapen guztien $\langle \text{ZergaOinarria} \rangle$
 + $\langle \text{Salbuetsia} \rangle$ motako banakapen guztien $\langle \text{ZergaOinarria} \rangle$
 + $\langle \text{Ez-zergapekoa} \rangle$ motako banakapen guztien $\langle \text{Zenbatekoa} \rangle$

“ \sum banakapenen kuota” =

$\langle \text{Zergapekoa} \rangle / \langle \text{Ez-salbuetsia} \rangle$ motako banakapen guztien $\langle \text{ZergaKuota} \rangle +$
 $\langle \text{BaliokidetasunErrekgarearenKuota} \rangle +$

(Baliozkotze orokorrak deskribatu dira. BEZaren araubide berezi batzuetarako salbuespenak daude)

Aldaketak gailu ziurtagirietan

Laster argitaratuko da sinatzeko politika berria. Gailu ziurtagirien aldaketak jasoko dira.

Aldaketak gailu ziurtagirietan:

- Gailuaren serie zenbakiarekin identifikatu ordez fakturazio puntu bat identifikatuta eskatu ahal izango da.
- Aukera izango da ziurtagiriak blokean eskatzeko (gehienez 100 ziurtagiri). Gailu ziurtagiriak blokean eskatu nahi badituzu, hona jo dezakezu: [IZENPEren TicketBai harremanetarako postontzia](#).
- Instalatuta egongo den gailu zehatza eduki aurretik eskatu ahal izango da.
- Zerbitzariko arkitekturetan erabili ahal izango da (hirugarrena/hartzailea izan ezik)



Puede incluir tantos dispositivos como desee en una misma solicitud. Se emitirá un certificado por dispositivo.

Datos de la entidad:

Razón social

Datos del dispositivo:

Número de serie (CN)

Tipo de dispositivo

PUNTO DE FACTURACIÓN

Nombre del fabricante (O)

Modelo del dispositivo (OU)

AÑADIR DISPOSITIVO

- Fakturazio puntu bat identifikatzen duen kodea bakarra izan beharko da (“Serie zenbakia (CN)” eremuan adierazi behar da), eta ezin izango da aurrez beste gailuren batean erabili.
- Fabrikatzailean eta ereduaren informazio esanguratsua eman behar da, zergadunak onartuko duen gailuaren jatorria zein den jakin dezan.

Gailu ziurtagirien erregistroa:

TicketBAI fitxategiak bidaltzeko gailu ziurtagiriak erabili behar izanez gero, jakinarazi zure bezeroari fakturak egiten hasi aurretik gailu ziurtagiria zergadunaren IFZrekin lotu behar duela. Horretarako, hemen sartu beharko da: [Gailu ziurtagirien erregistroa \(araba.eus\)](#)

Gailu ziurtagirien erregistroa sartzeko, beharrezkoa da ziurtagiri digital baten bidez identifikatzea, hala nola: BAK gakoa – BAKQ – NANE , etab.

Bai zergadunak berak bai 2-d mailako borondatezko ordezkariak egin dezakete erregistroa.

(Gailu ziurtagirien erregistroa guztientzat egin behar da, eta berdina dio “fakturazio puntu” motakoak edo bestelakoak diren)